

**BATZAR NAGUSIEN JARRERA PROBINTZIEN ARTEKO
KANPORALDAKETARAKO ARAZOAN (1799-1800)**

**FERMIN PINACHO LARRALDE
GOTZON ANSA SAIZAR
AGUSTIN CRISTOBAL HERNANDEZ
PELLO CUESTA GARMENDIA
FERNANDO LANDA ITURROSPE
JUAN ANTONIO LASA MIQUELEZ
JOSE IGNACIO LORENZO ORTIZ
MARKELO MADARIAGA MARKOARTU
JOSE ANTONIO TORRE ALTONAGA
ANGEL SANCHEZ SERRANO
RAMON VAREA PIÑEIRO
JOSE ANGEL ZINKUNEGI URDAPILETA
JOSEBA ZUAZO OLOZAGA
PABLO VIVANCO RUIZ**

Erregimen Zaharrean egonkortasuna ezaugarritzat hartu ohi da eta Batzar Nagusien zeregina ildo horretan ere kokatu dugu. Ostera, garai bakoitzean instituzio hauek Diputazioen bitartez Foruen aplikazioak berritu eta egokitu dituzte. Idazki honetan Batzar Nagusien den instituzio ordezkaria, Diputazioaren jarrerak aztertzen saiatuko ditugu, XVIII. eta XIX. mende bitartean, probintzien arteko kanporaldaketei eta kaparetasun orokorrei dagokienean.

Baina legeen eraberritze hauek ez dira neutralak. Batzar Nagusi eta Diputazioen partaideak klase sozial ezberdinen artean hautatu ohi ziren arren, dependentzi erlazioen arabera (udal agintaritzaren monopolioekin loturik) eta Batzar Nagusien eraikuntzan udalen garrantzia kontutan harturik, instituzio hauen iharduera probintzietako klase sozial ekonomiko ahaldunen alde agertuko da.

Kaparetasun orokor eta odol garbitasunaren arazoek probintzien arteko biztanlegoaren kanporaldaketak mugatzen zituzten heinean, beste zenbait faktore sozialekin batera uztarturik, demografia eta egitura ekonomikoen bilakaera erabakitzen zuten. Beste aldetik, egoera honen aurka egiten ziren saioak erantzun eta istilu sozialaren adibidetzat eman dezakegu.

Idazlantxo honetan erabiltzen diren zenbait agiri Arabako Foru Aldundia-
ren artxibategian lortuak izan dira, eta bertoko arduradunari, M^a Camino Ur-
diain-i dagozkion eskerrak, eman zizkidan laguntzagaitik, aipatzen ditut.

Erdi Aroan kaparetasun orokorraren lehendabiziko aipamenak sustraiturik daude. Bizkaiko kasuan 1526.ean Foru Berrian Jaurerriko biztanlego osoari zabaltzen zitzaion eskubide hori. Denboran zehar lau probintzietara (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa) hedatuko da, baina probintzi bakoitzean zenbait ezaugarri berezi izango duen. XVIII. mendean Araba eta Nafarroako biztanlegoaren sailkapen sozialan kapareak ez direnak nagusi ziren; beste bi probintzietan portzentaiak parekaturik daude. Hala ere, Gipuzkoan eta 1610.ean eskubide hori biztanlego osoari onartu zitzaion (1). Beraz, bi mendeetan zehar biztanlegoaren egoera aldatu da.

(1) ARIZCUN ZELA, Alejandro: “Los apeos de fuegos como fuente de estudio de la población navarra”, *Príncipe de Viana*, Anexo 4, I Congreso de Historia de Navarra de los

Kaparetasun orokorra eta odol garbitasunaren garrantzia arlo juridikoari soilik dagokie, baina XVIII. mendeko bukaeran gizartearen sailkapenean gaitasun ekonomikoa guztiz garrantzitasagoa zen. Eta probintzien arteko biztanlego kanporaldaketan sor zezakeen oztopogaitik garrantzi ekonomiko gainezkatzen zuen arazo honek.

Hauzotasuna (“vecindad”) eta paramena (“residencia”) desberdintzapena odol garbitasunari eta kaparetasun orokorrari dagozkie. Eskubide horien jabebedunek eskualdea aldatzerakoan eta egoitza berrian aurreneko eskubide guztiak mantentzen zituzten. Hau da: botua edukiz, Administrazio mailan hautagai eta karguduna izanez, lur komunalen erabilera gozatuz, zergak ez ordainduz, kaparea izatearen ohorea eta abarrez. Odol garbitasuna soilik frogatzen zuenak, baina kaparetasun orokorrik ez, egoitza berrian paramena ematen zioten, baina inolako eskubiderik gabe. Nafarroako kasuan, hauzotasuna hauzoko etxe baten jabea izatean zetzan; etxerik ez zuenak eskubiderik gabekotzat ematen zuten. Adibidez, Baztan bailaran edo Burundan (2).

Zenbat kasutan probintzien artean eskubide hauen elkar berronespena ematen zen. Nafarroako kapareek Laguardian (Araba) eskubide guztiak zituzten. Ildo berean XVIII. mendeko bigarren aldirian Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak egin zituen saioak Gipuzkoa eta Arabako biztanlegoaren kanporaldaketarako kaparetasun orokorra zela medio (3). Haatik, XIX. menderraino erregimen liberalarekin konpotzeke dagoen arazo bat izango da.

Kaparetasun orokorraren ideia lau probintzi hauetan eta XVIII. mendean guztiz zabaldurik egonda ere, errealitatea beste gisakoa zen. Mende bukaeran kaparetasun eskubide hori biztanlegoarekin alderatuz gero, biztanlego osorik ez zuen hartzen. Bizkaian %48a, Gipuzkoan %43a, Araban eta Nafarroan eskualdeko sailkapen ezberdinez, baina petxarien gehiengo batez (4).

siglos XVIII, XIX y XX, T.I, Diputación Foral Navarra, Pamplona, 1986, 61. orr. ENRIQUEZ FERNANDEZ, Javier; ENRIQUEZ FERNANDEZ, José Carlos: “La estructura Foral-Judicial de Vizcaya en el Antiguo Régimen”, *Komunikazioak*, II. atala, 1. alea, Euskal Herriaren Historiari buruzko biltzarra, II. Euskal Mundu Biltzarra, Bilbo, 1987, 24. orr.

(2) ARIZCUN CELA, A.: *op. cit.*, 62. orr. BLAZQUEZ GARBAJOSA, A.: “Los expedientes de genealogía y limpieza de sangre de los siglos XVII y XVIII en Vizcaya: Un intento de acercamiento a la mentalidad vizcaína de la época”, *Komunikazioak*, II. atala, 2. alea, 655. 663. orr. GARCIA-SANZ DE MARCOTEGUI, Angel: “Conflictos sociales entre vecinos propietarios y caseros o inquilinos de la Barranca de Navarra en la crisis final del Antiguo Régimen”, *Gaurko Euskal Gizartearen sorburu hurbilak, XVIII-XIX.mendeak*, Eusko Ikaskuntza, San Sebastián, 1984, 415. orr.

(3) CASTILLO COLOMA, Txomin: “Konbenioko gerla Nafarroan (1793-1795)”, *Principe de Viana*, Anexo 4, T. II, 202. eta 227. orr., 36. oh. ZUAZO OLOZAGA, Joseba: “1767.ean Arabako biztanlegoa gehitzeko eta lurgintza bizkortzeko Euskal Herriaren Adiskideen proposamendua”, *Ernaroa*, 2, Universidad de Deusto, Bilbo, 1986.

(4) GARCIA-SANZ, Angel: *op. cit.*, 415. orr. OLAECHEA, Rafael: “El centralismo borbónico y las crisis sociales del siglo XVIII en el País Vasco”, *Historia del Pueblo Vasco*, 2, Erein, San Sebastián, 1979, 184. orr.

Beraz, hiru probintzietako kanporaldaketan (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eskatzen ziren filiazioak edo odol garbitasuna eta kaparetasun orokorraren frogantzak biztanlegoaren kalterako ziren. Neurri batean biztanlegoaren erdia baino gehiagok eskubide hori ez zuelako, eta eskubide hori gozaten dutenen artean prozesuaren garestitasunak ere bere aplikazioa murrizten zuen.

Prozesu guzti honetan legeekiko pausuen garrantzi ukaezinezkoa da. Edozein legeren egokipenerako, hiru probintzien arteko eta Diputazioen bitartez adostasuna lortu ondoren, Erret Kontseiluak bere oneritzia eman behar zuen. Guzti hau erret onarpena lortu baino lehen (5). Hemen ikusiko dugun agirietan, probintzi mailako eliteengan eman zen mentalitatearen aldaketa azalduko dugu. Adostasuna lortzeko zioak ere aurreratuko ditugularik.

Hasiera batean bi probintzien arteko kanporaldaketak errazteko egiten ziren saioak Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen eskutik sortu ziren. Geroago, paraleloki Elkarteak eta Diputazioek proposamen hau aurrera eramango dute. Elkarteak berak Batzar Nagusietara eta beste probintzietara kanporaldaketarako proposamena hedatzea bultzatu zuen. Ideia hau 1775.ean Bizkaiko probintzian sortu zen eta geroago Batzar Nagusiaren Diputazioan lehendabiziko ahalegina egingo denean, Bizkaiko probintzia bultzaka agertzen zaigu (6).

Ikusiko dugunez, mentalitate mailan ideia hauen sorrera eta bere kokapen geografikoa probintzi honetan ematen den bilakaera ekonomikoekin loturik legoke.

Arabako kasuan, Diputazio mailan 1799.ean hiru probintzien arteko kanporaldaketarako arazoa eztabaidatzen hasi zen. Hemen ere hauzotasuna eta paramena kontutan hartzen dira, hala nola beraiei dagozkien ondoriak (ofizioetan parte hartzea). Kanporaldaketarako betebeharren erraztasuna lortu asmoz, uzten zuten probintziako Diputazioaren ofizio bat besterik eskatu nahi dute, kaparetasunaren gozamina zihurtatzen duelarik. Beste aldetik, probintzien artean eskatzen ziren tramiteak ez ziren berdinak. Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputazioek zertifikazio arrunt bat eskatzen zuten bitartean, Arabako Diputazioak kaparetasuna eta odol garbitasuna guztiz zihurtaturik eskatzen zituen. Haatik erregeari zuzendutako errepresentazioan, hiru probintzien arteko adostasuna lortuz gero, (1800.ko Azaroak 4an) tramite erraza zen. Lehen probintzi barnean herria aldatzeko erabilten ziren tramiteei (udaltxeko eskribauaren testigantza, alkate eta prokuradore orokorraren sinaduraz) probintziatik at irtetzerakoan beste probintziara igarotzeko, Diputatua- ren atestatu bat gehitzen zitzairen. Baina errepresentazioa galdurik suertatu

(5) ARTOLA GALLEGU, Miguel: "El estado y las provincias vascas, 1700-1876", *Gaurko euskal gizartearen sorburu hurbilak, XVIII-XIX. mendeak*, Eusko Ikaskuntza, San Sebastián, 1984, 51. orr.

(6) Archivo Provincial de Alava (A.P.A.), Fondo RSBAP, Caja 20-9.6, "Junta Semanaria del día 30 de Junio de 1775".

zenez, 1802.ean Ekainak 12an prozesuari berriz hasiera eman zioten; probintzien arteko adostasuna eta Diputatuen sinadurak bilduz (7).

Arabako Hermandadeen artean kanporaldaketak 1792.ko Uztailaren 17an eta 1793.ean egindako Batzar Nagusietan gauzatu ziren, baina beraiei dagokien Erret oneritzia 1800.ean (Apirilak 14.eko Erret Agindua) lortu zuten. Hau da Erregimen Zaharreko ohizko legeekiko prozesutik at dago, ezen Erregearen onespena lortu baino lehen praktikan jarri zuten. Agian, garrantzi gabekotzat jotzen zutelako, ala aurkaritzaren adibidea?

Bi data hauen artean (1792 Araba mailan Kapareen kanporaldaketak gauzaten direnean, eta 1800 hiru probintzietan adostasuna lortzen denean, baita ere kaparedunen kanporaldaketarako berezko eskubideen komuntaduraz) zenbait gertaeraren eragina neurtu behar dugu. Konbentzio gerraren eragin ideologikoa (pertsonea guztien berdintasun soziala estamentuen gainean) ukaezinekoa da. Baina, beste aldetik, Erregimen Zaharrak irauten duenez, bi baldintza kontrajarri horien artean, ohizko eta aro berriaren mentalidadeen arteko oreka bat bilatu nahi dute.

Bai Konbentzio gerra, bai aurreneko Ingalaterra kontrako gerraren eraginak gehitzen dira Erregimen Zaharraren deuseztapenerako. Eta bata buruz behera dihoan heinean lege zaharren berrantolapena edo egokipena bultzatzen da. Zentzu honetan hiru probintzien arteko kaparedunen kanporaldaketarako ematen ziren erreztasunak ulertu behar ditugu. Beraz, Batzar Nagusietan eta Diputazioen bitartez egoera berriari aurre egiteko saio eta ahalegin ezberdinak egingo dituzte probintzi hauetako klase nagusiek.

Gainera, Bilboko portuaren bitartez Kantauriko Itsasaldean zegoen merkatalgintzaren gehiena bideratzen zen. Honi Orduña-ko bidearen zabaldua gehitzen zitzaion, Castilla-Bilbo-Ipar Europa merkatal ardatz bat osatuz (8).

Bilakaera ekonomiko horri itsatsirik zegoen talde burgesak eta nobleak, baina indar ekonomikoa merkatalgintzaren bitartez lortu zutelarik, Batzar Nagusi eta Diputazioen partaideak osatzen zituzten, eta monopolio honen bidez, hala nola odol garbitasun eta kaparetasunaren bitartez, administrazio mailan karguen pilaketa lortzen zuten, beste lehiakideen bazterpenaz. Baina baita ere, beraiei interesatzen zitzaaien arloak eraberrituz, eta bere interesentzat kalterako zena gaudituz. Azken batean, zenbait klase edo klaseren zati bat ideia berriaren alde edo zaharra eta berriaren alde egokipena bilatzen zutela, eta Batzar Nagusietan zuten monopolioaz baliaturik erantzun ezberdintzatua eman nahi zuten.

(7) A.P.A., Fondo Archivo Provincial, Legajo DH 4412, nº 7, "Sobre emigración de los naturales de las tres provincias que mudan de residencia de unas a otras, conservándoles en aquella que pasan el mismo estado de Nobles a que estaban admitidos".

(8) ZABALA URIARTE, A.: *El comercio y tráfico marítimo del Norte de España en el siglo XVIII*, Haranburu, San Sebastián, 1983.